

Olentzero ekitaldiez beterik dator

Abenduak 21

- > IPUIN KONTALARIA Bibiñe Pujana, 18:00etan parketxean. Gorbeialako parketxeak antolatuta.

Abenduak 24

- > OLENTZEROREN etorrera. 17:00tan Herriko Plazan. Guraso Elkarteak antolatuta.

Abenduak 26, 27 eta 28 / Urtarrilak 2 eta 3

- > LUDOTEKA ZABALIK. 11:00etatik 13:30etara.

Abenduak 28

- > ARGAZKI LEHIAKETAren erakusketa eta sari banaketa. 18:00etan, ludotekan.

Abenduak 30

- > AREATZAKO MUSIKA BANDAren emanaldia. Urte Amaierako Kontzertua, 19:30tan eleizan. Amaieran Ederren aldeko zozketa izango da (Gabon otzara eta bidai bat).

Abenduak 31

- > GORBEIALAKO GURUTZERA IGOERA

Urtarrilak 3

- > DOKUMENTALA. "GAZTA ZATI BAT". Udal aretoan 20:00etan. Kultur Batzordeak antolatuta



Ludoteka Gabonetan

- > Abenduak 21: Nagusien lagun izkutuko oparien banaketa eta udazkeneko marrazki lehiaketaren sari banaketa.
- > Abenduak 26: "Idazlea zeu zara" antzezlan.
- > Abenduak 27: Txikien lagun izkutuko opari eta udazkeneko sari banaketa.
- > Abenduak 28: Nagusientzat bingoa.
- > Urtarrilak 1: Txikientzako bingoa.
- > Urtarrilak 2: Euskal kantak. Karaoke txiki eta handiek.
- > Urtarrilak 3: Mandalak txikiekin.
- > Urtarrilak 4: Mandalak nagusiekin.

PIÑERAKO SARRERAK banatuko dira. Interesatuak, emon izena ludotekan edo udaletxean.

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Areatzako Udalaren osoko bilkurak Euskara ikasteko dirulaguntzak arautzeko ordenantza onartu du. Ordenantza honek Areatzako Udalak herriko pertsonak Euskara ikasteko ematen dituen diru-laguntzak arautzea du helburu.

Diru-laguntza gehienez ikastaroaren zenbatekoaren % 80 izango da. Diru kopuru hori ezin izango da urte eta pertsonako 500 euro baino gehiago izan. Diru-laguntza honen onuradunak, ikastaroa euskara irakasteko erakunde homologatuen batean (publiko nahiz pribatua) egiten duten Areatzan erroldaturiko auzokideak izango dira.

Ordenantza honetan adierazitako diru-laguntzetan sartzeko, doakionak Areatzako Udalaren Errolda Nagusian aurkeztu behar du bere eskaria, hurrengo agiriekin batera:

- > Banketxeko ordain-txartela edo txartelak, ikastaroaren matrikularen ordainketa egiaztatzeko.
- > Matrikulatuta egon eta ordaindu duen zenbateko osoaren egiaztagiria, ikastaroa eman duen zentroarena.
- > Asistentziaren 3/4ak bete dituen ziurtagiria, ikastaroa eman duen zentroarena.

Una nueva iniciativa municipal de participación ciudadana



El Ayuntamiento de Areatza mantiene su apuesta por la participación ciudadana y promueve una nueva iniciativa: “Zuk Esan Areatza”. Su objetivo es claro: conocer y recoger tu opinión como vecino o vecina de Areatza sobre temas de interés para el pueblo. Se organizarán foros, se impulsarán iniciativas a pie de calle y se dispondrá de una nueva web de participación, que se pondrá en marcha a partir de enero: www.zukesanareatza.com



“Zuk esan Areatza” ya está desarrollando la primera iniciativa a pie de calle, que pretende recoger las opiniones y sugerencias de las vecinas y vecinos de Areatza acerca de las peatonalizaciones del pueblo. Para ello, se buzoneó recientemente un folleto que contiene unos planos del casco urbano y un cuestionario para que, quien así lo desee, indique su propuesta de peatonalización para estos

entornos, además de opinar sobre las ventajas e inconvenientes de la peatonalización, el horario de cierre de la plaza, el acceso de emergencias, otras posibles peatonalizaciones, etc. Los folletos se pueden recoger en el Ayuntamiento. La iniciativa se ha hecho visible saliendo a la calle el viernes 21 (de 17:00 a 20:30 horas) y el sábado 22 (de 11:00 a 15:00 horas) de diciembre, mediante la instala-

ción de una carpa en Gudarien Plaza para recoger las aportaciones a través de una urna. Quien lo prefiera, también puede dejar sus cuestionarios durante todo este mes en el buzón verde situado en el portal del Ayuntamiento. La intención municipal es dar la oportunidad de aportar a la mayor cantidad posible de personas. Por eso, ha decidido extender la iniciativa hasta final de año.

A partir del 15 de enero, nueva web de participación: www.zukesanareatza.com

Eskualdeko Enplegu Plana

Arratiako Udalen Mankomunitateak, Galdakaoko eta Amorebieta-Etxanoko administrazioek, inguruan modu bateratuan enplegua sustatzeko apustua egin dabe eta jada lehenengo analisisa aurkeztu da, duela gitxi, Usansolon. Diagnostiko horretan, ahuldadeak eta sendotasunak agertzen dira. Ahuldadeen artean dagoz populazioa zahartzeko arriskua, lehen mailako sektorearen ahulezia, Enplegu Erregulazino Espedientearen egoeran dagoan enpresa-kopuru handia edo saltoki itxien konzentrazioa, besteak beste. Aldeko puntuei jagokonez, bertako populazioaren ikasketa maila (er-

taina-altua), biztanle bakoetako batez besteko BPG (Bizkaitoa baino altuagoa) edo industrialdeetan eskuragarri dagoan lurzoru industrial aipatzen dira.

Epe ertainean garatu beharreko ekintzen artean, Enplegu Erregulazino Espedienteek kaltetutako langileentzako laguntza-zerbitzua edota enplegurako behatoki bat sortzea aipatzen dira. Testuak, beste neurrien artean, lau nagusi proposatzen dauz: eskualdean trebakuntza-eskaintza lehiakorra garatzea, enpleguaren babesera eta sustapenera



zuzendutako kolaborazino-sistemea artikulatzea, ekintzailatza sustatzea eta eskualdean garapenerako potentziala daukien sektore ekonomikoetan (zerbitzuak eta lehen mailakoa) enplegua sustatzea. Ondorioz, eskualdea enpleguaren sorreraren eragilea izatea gura da.

Emakumeenganako indarkeriaren kontra ekinez

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazinoarteko Eguna dala-eta, Arratian 15 eguneko egitaraua antolatu eben Arratiako andra alkartearen, talde feministen eta bertako erakundeen artean, Areatzako Udala barne.

Ekitaldi nagusia erreibindikazino-egunean bertan gertatu zen, alegia, azaroaren 25ean. Egun hartan MARTXA MOREA delakoa antolatu zen. Arratiarrak morez jantzita joan ziren oinez Igorrera, bertan konzentrazioa egiteko eguerdi partean. Batzuk bizikletaz joatera ere animau ziran.

Ekintzak Areatzan

Gure herrian ere ekintzak antolatu ziran, tamalez sarriegi gertatzen den emakumeen kontrako indarkeria salatzeke eta gizartea kontzientziatu beharra zabaltzeko. Horrela, azaroaren 15ean eta abenduaren 10ean, Areatzako Emakumeen Foroko Idoia Ruizen eskutik, tailerra antolatu zan,



Goian, Martxa Morearekin bat egin zuen Areatzako eta Zeanuriko taldeak, herritik Igorrerantz abiatzen. Eskuman, Idoia Ruizen berbaldia, oso interesgarria..



Emakumeen Foroaren gelan. Idoiak "Andreen kontrako biolentzia ekonomikoa" lelopeko hitzaldia eskaini eban. Bestalde, azaroaren 23an (barikua), Arratiako Mankomunitateak

antolatuta, Beldur Barik lehiaketako sari banaketea ospatu zan, Areatzako Udal Aretoan. Horren ostean, luntxa edo kopautxoa dastatzeko aukera izan eben bertaratutakoek.

Euskaraz bizi gura dogu

Urtero lez Euskararen Eguna ospatu zan abenduaren 3an, Euskal Herri mailan hainbat agerraldi gertatuz eta ekitaldi andana burutuz. Gure herrian be noski oihartzuna euki eban ospakizun honek eta aurreko egunetan jarduera desberdinak bizi genduzan, horreetako gehienak zapatuan, abenduaren 1ean.

Baina aurrena barikuan jazo zan, azaroaren 30ean, izan be giroa berotzeko gaztetxean musika-saio berezia euki eben DJ Bull deejay-agaz. Hurrengo egunean, esan bezala, gauzatu ziran ekitaldi gehienak. Goizeko 11etatik aurrera duathloia izan zan, bi modalitate jokatu: 0 eta 10 urte bitartekoena eta 10 urtetik gorako umeena. Horretan parte hartzeko bizikletea, patinetea edo patinak eroatea derrigorrezkoa izan zan, baita kaskoa eroatea be. Amaitukeran ume bakoitxak oparia jaso eban. Goiza bukatzeko, 12:30ean, umeentzako jolasak egon ziran edadez edadeko txokoetan.

Arrastian barriz, 16:00etan, esku pelota partiduak jokatu ziran frontoian, Areatza eta Otxandio lehiatuz. Horren ostean,



19:00etan, ipuin kontalaria euki gendun ludotekan, Ixabel Millet hain zuzen, 4-9 urte bitarteko umeen gozamenerako. Ordu horretan bertan, bitartean, helduentzako antzerkia antolatu zan Udal Aretoan, 10 urtetik gorakoek ere ikusteko aproposa. Horrela, "Xentimorik gabe" izeneko lana antzeztu eben. Euskararen Eguna erreibindikatzeko gogoari eutsiz, azken jarduera bat ere izan zan, kantu poteoa, domeka goizarako utzi zana (abenduak 2).

Euria da ta, euria da... ta Euskal Jaia!!!

Conseguir organizar un programa de dos días con un presupuesto tan reducido (poco más de 7.000 euros), solo es posible gracias a la participación desinteresada de muchos y muchas areatza-rras. Eskerrik asko guztioi!

Urriaren 19an eta 20an Euskal Jaia ospatu genduan, bosgarren urtez jarraian. Eurria izan zan eta horrek jarduera batzuk bertan behera uztea eragin eban, batez be kalez kale egin beharreko dantzaldia, baina hala ere, orokorrean jendea animatu zan parte hartzera eta, hutsuneak-hutsune, positibotzat jo behar da emaitza, ekimen desbardinetan parte hartu dauen jendearen gogo eta eskuzabaltasunari esker. Izan be, dantza eta jokoak prestatzen, bazkaria banatzen, musika jotzen, dantza egiten, taloak prestatzen, berakatz sopa eta gaztainak egiten, azoka postuetan, herri kiroletan... eta azken batean antolatzen zein parte hartzen ibili diranei esker egiten da Euskal Jaia.

Jaiaren datuak

Aurten 28 postu egon ziran guztira, produktore eta artisauak barne, eta 18 Areatzakoak, non herriko 48 pertsona aritu ziran lanean musu-truk. Horri esker alde honek dauka aurrekonturik baxuena. Bazkariaren kostua saldutako txartelekkin konpensatzen da. Kirola, dantzak



eta antzinako jokoetan be, herriko gazteak dagoz gehienbat. Horra adibidez Lamine-txe gaztetzekoek Joko Alai alkatereagaz antolatutako herri kirol desafioa. Horrek be, aurrekontua gitxitzen dau, bolondrez antolatu eta parte hartzen dabelako.

Ondoko taulan ikusten danez, bestelako gastuak dira -erromeria, megafonia, barikuen izandako frontoiko zesta eta pala partida ikusgarriak, eszenatokia eta musikariak-aurrekontu handiera daroatenak.

Aipatzeko modukoa da, antolaketarako erabiltzen dan aurrekontuaz Euskal Jaia aurrera atera ahal izatea. Lortu daiteke, herritar askok bolondres gisa parte hartzen dutelako. Benetan oso eskertzekoa da, hori baita, hain zuzen, jaiaren muina eta zentzua: Bilarroztarren parte hartzea.

	GASTUAK	SARRERAK
Bazkaria/Taloak	2.839	2.972
Tailerrak eta postuak	1.179	-
Bestelako gastuak	9.176	-
Dirulaguntza Diputazioa		2.500
GUZTIRA:	13.194	5.472
UDALAREN AURREKONTUA:	7.722	-

